

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	URIBEKOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH 4	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Ekonomia		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntzak, Matematika, Kultura zientifikoa, teknologia, Geografia eta historia, Ekintzaitza eta enpresa jardueretarako hastapena, balio etikoak		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none">1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia2. Matematikarako kompetentzia3. Zientziarako kompetentzia4. Teknologiarako kompetentzia5. Kompetentzia sozial eta zibikoa6. Arterako kompetentzia7. Kompetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Gontzal Alcorta Garai Mikel Galarza Idirin	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-2019

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Ekonomiaren oinarriko printzipioak ezagutzea, printzipio horiek baliabideei eta premiei	1.1 Urritasuna eta erabakiak hartu eta hautatu beharra zer diren badaki, eta, ildo horretan, ondo

<p>dagokienez zer ondorio dakartzaten jakitea, eta erabaki ekonomikoek une oro herritarren bizitzan eragiten dutela ohartzea.</p> <p>2. Terminologia ekonomikoa ezagutzea eta terminologia horrekin ohituta egotea.</p> <p>3. Enpresek izan ditzaketen forma juridikoak deskribatzea.</p> <p>4. Ekoizpen-prozesuko ezaugarri nagusiak aztertzeke gai izatea.</p> <p>5. Enpresek zer finantziazio-iturri dituzten jakitea.</p> <p>6. Kasu errazetan, enpresen diru-sarreraren eta kostuen egitura zehazteko eta haien irabaziak kalkulatzeko gai izatea.</p> <p>7. Aurrekontu pertsonal bat egiten eta zer diru-sarrera eta gastu mota dauden bereizten jakitea.</p> <p>8. Modu arrazionalen erabakitzea bere alternatiba ekonomikoen artean, haiek norberaren eta gizartearen ongizatearekin lotzea, eta aurreztearekiko jarrera positiboa izatea.</p> <p>9. Diruaren oinarritzko funtzionamendua jakitea eta banku-kontuen motak eta ordainketa</p>	<p>daki edozein hautaketak beste alternatiba batzuei uko egitea dakarrela, eta beraz, ekonomia-alorrean nahitaez hartu beharreko erabakiek ondorio positibo eta negatiboak dakartzatela, norberaren era gainerako herritarren bizitzan duen eragina dela medio.</p> <p>1.2 Etxeko ekonomien eta ingurunearen (enpresak, administrazio publikoak eta etxeko beste ekonomia batzuk) artean sortzen diren harremanak ulertzen eta interpretatzen ditu.</p> <p>2.1 Ekonomiaren alorreko hainbat hitz ulertzen eta ongi erabiltzen ditu, bereziki etxeko ekonomiaren esparruari dagozkion ohikoenak.</p> <p>2.2 Ekonomiaren kontzeptua generoaren ikuspegiarekin ulertzen du.</p> <p>3.1 Enpresen forma juridikoak bereizten ditu, eta kasuan-kasuan balioesten ditu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera: sozietate anonimoak, erantzukizun mugatukoak, kooperatibak eta enpresaburu indibidualak, sozietate-forma juridikorik hartzen ez dutenak.</p> <p>3.2 Enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboaz jabetzen da, bereziki Euskal Herriko enpresei dagokienez.</p> <p>4.1 Ekoizpen-faktore eta sektore ekonomiko motak adierazten ditu.</p> <p>5.1 Enpresak finantzatzeko iturri motak eta bakoitzaren kostua aztertzen ditu (kanpokoak eta barnekoak, epe laburrerakoak zein luzerakoak), eta haien garrantzia balioesten du.</p> <p>6.1 Enpresa baten diru-sarrera eta kostuak kalkulatzeko, eta emaitza lortu eta interpretatzen du.</p> <p>6.2 Diru-sarrera eta kobratzea bereizten du, baita gastua eta ordainketa ere.</p> <p>7.1 Aurrekontu pertsonal edo familiar bat egiten du, eta diru-sarrera eta gastu bakoitza identifikatzen ditu. Gainera, haren jarraipena eta kontrola egiteko sistema bat ezartzen du.</p> <p>7.2 Informatika-tresnak erabiltzen ditu aurrekontua garatzeko, grafikoki irudikatzeko eta aurreikuspenak ondorengo errealitatearekin konparatzeko.</p> <p>8.1 Bere ekonomia planifikatu beharra ulertzen du, eta horren haritik, zuhurtziaz aurreikusten du etorkizunean berak eta bere herriak izango duten egoera ekonomikoa.</p> <p>8.2 Aurreztearen kulturari eta gastuaren kontrolari garrantzia ematen dio; zorpetzearen alde onak eta txarrak aztertzen ditu, arriskua aintzat hartuz eta unean-unean komeni den erabakia hartuz</p> <p>9.1 Banku-kontuekiko eragiketen termino nagusiak eta funtzionamendua ulertzen du, eta bankuek ematen duten informazioa ulertu beharra aintzat</p>
--	--

<p>baliabide moduan ematen diren txartelak bereiztea</p> <p>10. Administrazio publikoen oinarrizko diru-sarreraren iturriak eta gastuak aztertzea, egoki interpretatzea banaketa hori adierazten duten grafikoak, eta ongi ulertzea zor publikoaren eta defizit publikoaren kontzeptuak.</p> <p>11. Zerga-sistemak errenta birbanatzeko duen garrantzia onartzea eta horretarako zer tresna erabiltzen diren jakitea.</p> <p>12. Enpresei eta pertsona fisikoei ezartzen zaizkien zergak bereiztea eta zerga-betebeharrak betetzeak zer-nolako garrantzia duen ulertzea.</p> <p>13. Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-sistemaren eta lurralde komunekoaren arteko desberdintasunak ezagutzea.</p> <p>14. Interes-tasak, inflazioak, langabeziak eta antzeko magnitudeek zer adierazten duten jakitea eta kontzeptu horiekin lotutako grafikoak interpretatzea.</p>	<p>hartzen du, baita segurtasunaren garrantzia ere, harremana interneten bidez egiten denean, eta finantza-entitateei erreklamatzeko prozedura aztertzen du.</p> <p>9.2 Dauden txartel modalitate guztiak bereizten ditu, eta txartel horiekin eragiketarako egiteko oinarrizko segurtasunaren berri ere badu.</p> <p>10.1 Diru-sarrera publikoak nondik datozen badaki, eta gastu publikoaren jomuga nagusiak zein diren ere bai. Diru-sarrera eta gastu publikoaren arteko harremanak komentatzen ditu, haiekin lotutako datu eta grafikoaren azterketan oinarrituta.</p> <p>10.2 Ziklo ekonomiko bakoitzean, diru-sarrera eta gastu publikoaren aurreikuspena bereizten du, eta gogoeta egiten du haiek ezartzerakoan erabaki politikoek dakartzaten ondorioen inguruan.</p> <p>10.3 Zor publikoaren eta defizit publikoaren arteko aldeak ulertzen ditu, baita bi kontzeptu horien arteko harremana ere.</p> <p>10.4 Aurrekontu publikoak generoaren ikuspegitik aztertzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako esperientziak kontuan hartuz.</p> <p>11.1 Errentaren desberdintasunaren efektuak interpretatzen ditu, errenta birbanatzeko tresnei buruz hausnartzen du, eta administrazio publikoek zerga- eta birbanaketa alorretan dituzten funtzioak aztertzen ditu.</p> <p>12.1 Enpresa eta pertsona fisikoaren zerga-betebehar nagusiak zein diren badaki, baita zergen oinarrizko funtzionamendua nolakoa den eta zergen arteko alde nagusiak zein diren ere.</p> <p>12.2 Zerga-kargak ongizate-estatuari eta errentaren birbanaketari dakarkion ekarpena balioesten du, eta kontzientzia hartzen du subjektu pasibo bakoitzak legean ezarritakoaren arabera zerga ordaindu beharraz eta zerga-iruzurraren gizarte-efektu negatiboez.</p> <p>13.1 Euskal kontzertu ekonomikoaren berri badu, baita haren jatorri historikoaren berri ere.</p> <p>13.2 Kupoa zer den ulertzen du.</p> <p>13.3 Euskal zerga-sarea eta hari lotutako administrazio publikoak zein diren badaki, eta Foru Aldundien zeregina balioesten du bereziki, baita hainbat zerga arautzeko duten ahalmena ere.</p> <p>14.1 Inflazioaren eta langabeziaren kausak deskribatzen ditu, eta haien ondorio ekonomiko eta sozial nagusiak balioesten ditu.</p> <p>14.2 Interes-tasen funtzionamendua azaltzen du, baita tasa horiek aldatzeak ekonomiaren bilakaeran eragiten dituen ondorioak ere, eta arazoibide matematikoak aplikatzen ditu hainbat egoeratan interesak kalkulatzearekin zerikusia duten arazoak konpontzeko.</p> <p>14.3 Interes-tasekin, inflazioarekin eta langabeziarekin lotutako eduki ekonomikoa duten</p>
--	--

<p>15. Garapenerako politika makroekonomikoko zenbait aukera balioesteko gai izatea, dela garapen ekonomikoa, dela gizarte-garapena.</p> <p>16. Globalizazio ekonomikoak, nazioarteko merkataritzak eta integrazio ekonomikoko prozesuek pertsonen bizitza-kalitatean eta ingurumenean zer eragin duten ulertzeko gai izatea.</p>	<p>datu eta grafikoak balioesten eta interpretatzen ditu.</p> <p>15.1 Europar Batasuneko, Espainiako eta EAEko langabezia-datuak aztertzen ditu, baita aurrera eramaten diren garapen-politikak ere, langabeziaren aurkako borrokari dagokionez batik bat.</p> <p>15.2 Prestakuntza ekonomia garatzeko eta langabezia murrizteko tresnatzat jotzen du.</p> <p>15.3 Unean-unean, bere aukera-eremuak eta enplegu-joerak ikertzen ditu.</p> <p>16.1 Munduko herrialde guztietako ekonomien interkonexio-maila balioesten du, eta ikuspegi globala aplikatzen du iritzi kritikoak emateko.</p> <p>16.2 Herrialdeen arteko truke ekonomian eragiten duten eta truke hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzen ditu.</p> <p>16.3 Gaur egungo gertaera ekonomikoak aztertzen eta eztatzen ditu, globalizazioaren eta nazioarteko merkataritzaren testuinguruan.</p> <p>16.4 Europar Batasuneko ekonomia- eta moneta-batasuneko prozesua deskribatzen eta komentatzen du.</p> <p>16.5 Ingurumen-arazoen eta nazioarteko inpaktu ekonomikoarekin duten harremanaren inguruan hausnarketa egiten du, garapen jasangarria ezartzeko aukerak aztertuz.</p>
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

LEHENENGO EBALUAZIOA:

1. EKONOMIA, ZIENTZIA BALIAGARRIA
2. EKOIZPENA ETA HAZKUNDEA
3. KONTSUMO ARDURATSUA

[arazo egoera](#)

BIGARREN EBALUAZIOA

4. MERKATUAK ETA ENPRESA
5. ENPRESA ETA HAREN INGURUNEA
6. FINANTZEN OSASUNA
7. DIRUA ETA HURA ERABILTZEKO MODUAK
8. EKOIZPENA ETA PREZIOAK

HIRUGARREN EBALUAZIOA

9. LAN MERKATUA
10. ESTATUAREN KONTUAK
11. NAZIOARTEKO MERKATARITZA ETA EUROPAR BATASUNA
12. GLOBALIZAZIOA ETA MUNDUKO EKONOMIAREN DESOREKAK

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Gai bakoitzaren hasieran irakasleak gaia aurkeztu eta eskema bat egingo du landuko diren edukiekin. Hortik aurrera, irakasleen azalpenak eta ikasleen ekarpenak ulertuz eta laburtuz, ikasleek euren apunteak sortuko dituzte irakaslearen laguntzarekin.

Klasean ikasleen parte hartzea eta ekarpenak sustatu egingo dira, talde kohesioa eta errespetua indartuz.

Ikasleek banaka zein taldeka lan egingo dute gelan, eta ikaskideen aurrean euren ideiak defendatzeko eta ikuspuntua ezberdinak azaltzeko esparruak erreztuko dira.

Klasean bideo, dokumental eta pelikulak ikusiko dira eta eurei buruzko hausnarketa egingo da ere.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Ebaluazio bakoitzean froga ezberdinak egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldean egindako lan bat, non taldearen lana ebaluatuko dugun • Talde lanaren aurkezpena, non talde bakoitzeko kideen aurkezpena ebaluatuko dugun. • Azterketa bat, non ikasle bakoitza bakarka ebaluatuko dugun. (3. ebaluazioan) <p>Froga hauetaz aparte, klasean parte hartze aktiboa eta lana ere ebaluatuko da</p>	<p>Froga bakoitzak bere pisu espezifikoak izango du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3. ebaluazioan, azterketakoa, nota osoaren %70 izango da. • 3. ebaluazioan, taldean egindako lana nota osoaren %30a izango da. Aldiz, 1. eta 2. ebaluazioetan, nota osoaren %100 • Talde laneko nota kalkulatzeko, %65 taldeko lanaren nota izango da, eta beste %35 banakako aurkezpena izango da. • Jarrera egokia (klaseko parte hartzea, interesa, irakaslearekiko eta beste ikaslearekiko errespetua, jokabide arauak betetzea; puntualtasuna eta instalazioen eta materialen zainketa) edukitzea ezinbesteko baldintza izango da ebaluazioa gaitzeko. <p>Ebaluazioa gaitzeko, nota osoaren %50 lortu beharko da.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p>	
<p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Ebaluazio guztien ostean gaitu gabe geratzen diren ikasleentzat epe bat zabaltzen da egin ez duten (ala txarto egin duten) lana ondo egin eta entregatzeko. Irakasleak ikaslearekin hitz egingo du, lana zertan hobetu behar duen azaltzeko, eta gainerako zalantzak argitzeko. Gaitutako ez balu, ohiko deialdian aurkeztu beharko litzateke ebaluazio hori gaituzera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3. ebaluazioko azterketaren 4.00 baino gutxiago ateratzen bada, ebaluazioa derrigorrez berreskuratu beharko da • Kurtso osoa gaitzeko ebaluazio guztiak gaituta eduki behar dira • Ohiko deialdian, ikasleak gaitu ez duen / dituen ebaluazioa / ebaluazioak berreskuratuko du /ditu • Ohiko deialdian gaituzten ez duen ikasleak, ekainaren bukaeran ez-ohiko deialdian gaitzeko aukera izango du, ikasturte osoko materia guztia barnerrazten duen azterketa bakarraren bidez 	

- Ez-ohiko deialdia gaingutzeko, 5.00 atera behar da gutxienez eta nota hori izango da ikasleak gehienez lortuko duena
- Ez da nota igotzeko frogarik egingo

OHARRAK / OBSERVACIONES

Lehenengo ebaluazioan ez dugu azterketarik egingo. Ikasketa bidaia prestatzen egongo dira. Horixe izango da gure lehenengo ebaluazioko arazo egoera. Talde bakoitzeko ikasle guztiek izango dute proiektuaren nota berdina. Gero, aurkezpena egiten dutenean, ikasle bakoitzak bere aurkezpenaren nota izango du. Horrela, ikasle bakoitzak bi nota izango ditu, proiektuarena alde batetik (%80), eta aurkezpenarena bestetik (%20). Bi horien bataz bestekoa izango da nota osoaren % 100.

Irakasgai hau ez dago bakartua eta ikastetxeko egitasmoi lotuta dago. Hona hemen egitasmo horiexek:

Agenda 21: Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

Hezkidetzaren (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta [Hizkuntza Proiektua](#) adierazten den bezala, irakurmena lantzeko beren-beregiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako [txantiloia](#) erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.